

aikor!

txorierriko aldizkaria

**Belen Gana,
Txorierriko
AEK-ko
arduraduna:**



**“Euskarak etorkizuna izan
dezan herri osoaren
laguntza behar dugu”**

Korrika badator!

bai

euskarari, adierazpen askatasunari, herriari

e u s k a l d u n o n
Egunkariari



**Denok gara
Egunkaria**



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekiki)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Juanxu Bilbao,
Patxi Gaztelumendi, Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Oihana Astobieta, Puri Martinez,
Lourdes Lasuen, Belen Gana, Asier
Oruetxebarria, Joseba Butron, Atotz
Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Koldo
Niembro, Zamudioko Gazte
Asanblada, Saionara eta Maripi, Juan
Ignacio Eguzkizaga, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 4.750

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzeko adierazirik
erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako



Bikarriko Frenu
Alkartasun Kultureko

diruz lagundutako aldizkaria



13 Iskander Barrena



24 Izartza eskola



10 Txaro Arteaga



15 Tximintx



20 Lezamako Kurutze dantza taldea



16 Korrika

AURKIBIDEA

4 Eritxia 5 Aikor! gutunak 6 Laburrak eta albisteak 10 Gurean
izan da Txaro Arteaga 11 Mikel Zarate 12 Gazte asanblada
13 Gaztea eta... Iskander Barrena 14 Tximintx euskara taldea
16 Korrika 19 Txorierriko gazteak 20 Lezamako Kurutze dantza
taldea 22 Baserri mundua 23 Teknologia 24 Izartza eskolak
26 Txorierri ezagutu 27 Txorierriarrak munduan
28 Sukaldaritza 29 Denbora pasa 30 Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, Hemen dozu ere:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ beste kopuru bat _____

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Isildua sekula ere ez



Nagore Peñafiel (ETBko kazetaria)

Oraindik gogoratzen dut unibertsitatean kazetaritza ikasten genbiltzan garai hura. Irakasleek adierazpen askatasunaren garrantzia behin eta berriz azpimarratzen ziguten eta inongo zalantzarik gabe, inuzenteak izanda, horren lekuko eta eragile zuzenak izango ginela uste genuen. Baina badirudi dagoeneko sasoi baten zeukan balioa, esanahia eta garrantzia galdu egin duela adierazpen askatasunak edota, sakonago begiratu-ta, guztientzat hedatzen ez den eskubidea bilakatu nahi dutela ematen du.

Gure ama hizkuntzan idazten den egunkari bakarra, Euskal Herrian euskaldunek euren hizkuntza propioan irakur dezaketen *Euskaldunon Egunkaria* itxi egin dutenean, gu ere giltzapetuta sentitu gara. Egun, ez al dago argi edonork sentitzen, pentsatzen edota ikusten duena libreki adierazteko eskubidea duela? Are gehiago, komunikabide batean lan egiten duen kazetari batek gertatzen dena jendeari helarazteko eginbeharra eta eskubidea du, edo, gutxienez, horrela irakasten digute.

Juan del Olmo epailearen izena eta arakatze autoak ez ditugu erraz ahaztuko. Talde armatuko kide edo laguntzaile izatea leporatzen baitzaie

atxilotutakoei, eta *Euskaldunon Egunkaria*ren bitartez gauzatu omen dute delitua, beti ere, euren esanetan, ETaren estrategiaren barruan. Atxilotutakoak 10 dira, ezagunak gehienak, kazetaritzaren eta euskalgintzaren alorrean.

Bakoitzaren bizitzan badaude irudi batzuk denbora igaro ahala ez ditugunak ahazten, eta horietako irudi azalezin bat Martxelo Otamendi espetxetik irten eta gertatutakoa azaltzen hasi zeneko unea. Bere malloekin batera, gure begiek ere gainezka egin zuten, torturatuta izan den pertsona baten testigantza zuzena eta sentikorra entzutea beti ere latza eta samintsua izaten baita.

Oraingoan *Euskaldunon Egunkaria* da, baina ez da itxi duten lehen kazetaria. Berehala datorkigu gogora EGINen auzia. Bost urte pasa eta gero, ez da oraindik epaiketarik egon.

Eta hurrengo zer edo zein izan daiteke? Nori gerta dakioke? Eta bihar zer?

Horregatik, nahiz eta isiltzen saiatu, euskaldunok bat eginda tinko jarraitu behar dugu eta ez bakarrik gaur edo

bihar, beharrezkoa baita lan egitea kultur eskubideen zein oinarritzko giza eskubideen alde, kazetaritzari eta euskarari egindako eraso bortitza salatzeke, egunero egunkari euskaldun bat kaleratu dadin eta azken finean gure kultura bermatzeko.

Arazoirik ez da zertan eman behar: **GUZION LANA DA ETA HITZAK BAINO GEHIAGO BEHAR DIRA.** Idazle ezagun batek adierazi duen moduan: "Hitz isila ederra izan daiteke; isildua sekula ere ez."

Galipota sakonetik



Juan Luis Goikoetxea Arrieta
(Irakaslea eta euskaltzain urgazlea)

Ur azalean topatzen dugun galipota sakonetik dator. Agertzen denean dakigu badela. Aiko hor, azaleko galipota eta sakonekoa.

Txorierin euskara taldeak aktualitate dira, hala "Zorritzketan", "Lagatzu", "Arrekikili" nahiz "Tximintx"; indartsu plazara etorriak, sakonetik agertuak.

Euskarazko aldizkaria, Agata Deunaren oles kanta, euskaldunen afariak, azalean agertu arren, sustraia barren-barrenean dute. Itsaso urtsuan nabigatzen duen ontzia, ikusten ez den helizeak darabil. Euskara taldeetako euskaltzaleak urpekariak dira, herriaren historia zein izaera lotzen dabilta.

Bizi dugun Euskal Herrian inoiz ez da euskalgintzarako giro onik, beti da galipota, beti dira uriolak edo Molaren hegazkinak. Hala eta guzti, euskara taldeetako euskaltzale sakonekoak trebe dira ur gaineko ekaitzetan sakonetik behar egiten.

Txorierriko euskaldunok azaleko iritziek banatzen gaituztela bizi gara, iberbergaren gailurrean desberdindurik —politika kide erdaldunen lagun; beste alderdiko euskaldunaren etsai sutu—, ohartu barik, sakonera jota baino ez garela batuko, hau da, Txorierriko euskara taldeen korronteari jarraituz.

COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANTADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRENTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Mecánicas de la Peña
TEL. 94.675.91.45

URDULIZ ALMACÉN
Igeltzera, 6 1ª Planta D
TEL. 94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERI, 20 LOCAL
TEL. 94.463.67.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.euskalnet.net



Egunkaria aurrera!

Ez da, ez, erraza herri txiki batean jaio-
tzea eta norberaren nortasuna gorde ahal
izatea. Ez da, ez, erraza Euskal Herrian eus-
karaz bizitzea, ezta ekonomia propiorik edu-
kitzea. Ez da, ez, erraza herri xume batentzat
bere buruaren jabe izatea. Erraza ez izatea-
gatik, ez da erraza ezta kirol selekziorik sor-
tzea.

Izan ere, esaera zaharrak dioen legez,
"arrain handiak jaten ditu ttipiak", eta ingu-
ruan beti izan dugu arrain handirik. Eta arrain
handi hori moztortuta agertu ohi da:
batzuetan kakiz, besteetan ardiz; eta orain-
goan legediz. Bere handikeria gordetzeko txi-
kia jan behar, bestela akabo. Barruan hutsa
eta putza baita, besterik ez esateko.

Nekez eta izerdiz sortutako egunkaria,
Euskaldunon Egunkaria, kendu digute. Eta
berarekin batera gure ahotsa ere eraman
gura izan dute. Herri txiki baten armoniarako
bidea zarratu nahi izan dute. Herri txiki osoa
amorratu, tristatu, isilarazi, deuseztatu..., zer
gura dute?

Euskal Herrian egon ez dago arrain han-
dirik, ezta ertainik ere, horregatik elkarren
beharrean gaude. Arrain-baltsaren kanpoal-
deko aleak jan ondoren, handik gutxira, erdi-
koei ere gauza bera gertatuko zaie eta.
Baina, arrain txikiak badaki —eta jakin behar
du— txikia dela, eta bizirik irauteko ugalduta
elkartu beste erremediorik ez daukala.

Egunkariari egindako bidegabekeria
AIKOR!-i eta Txorierriri egindako eraso da;

geuri, zeuri eta euskal kulturari egindakoa.
Oraingoan ere, munstroak erakutsi digu
arrain txikiok elkarren antzekoak garela eta
gure arteko desberdintasunak, ostera, oso
azalekoak. Sasoa da, beraz, elkarren arteko
liskar txikiak albo batean utzita, elkarlanean
jarduteko, egunkari berria jaiotzen laguntze-
ko, herritik eta euskalgintzatik sortutako
proiektuak bultzatzeko, bertan parte hartze-
ko eta gure ekarpen txiki-handia bihotzez
emateko.

Europako hizkuntzarik zaharrena, men-
dez mende, egoera larrian jarri dute, eta
berarekin batera euskal kultura, euskal izae-
ra, euskal sena eta, azken batean, euskaldu-
na izatea bera ere. Konponbidea, ordea, gure
esku baino ez dago. Ildo horretan, AIKOR!-ek
eredu izan gura du, eta gure esku dagoen
guztia egiteko konpromiso sendoa hartzen
dugu hizkuntza zahar hau babestu, indartu
eta erabiltzeko.



Txorierrin ere oihartzuna izan du Egunkariaren itxierak.



Gutunak

Zure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritxi gehienek lekua euki dagien,
ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren
zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eri-
txia aginduteko helbidea: Tootan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HARAGITEGIA ALBERTO
Txorierrin etorbidea, 5
Tlf.: 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

HARATEGIA J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tlfnoa: 94 455 89 41
LARRABETZU

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Larrabetzuko San Isidro esku pilota txapelketa

Testua: Patxi Gaztelumendi

Apirilaren 11n hasita barikuro afizionario mailako pilota partiduak izango dira Larrabetzuko frontoian. Olatzeta pilotariak elkartek antolatuta, goi mailako pilotariak izango dira herrian. Larrabetzutik be hiru pilotari ariko dira txapelketa honetan: Eneko Ogara, Asier Bengoetxea eta Gorka Bilbao. Iazko edizio arrakastatsuen ostean, aurtengo txapelketa arrakastatsua izatea espero dute antolatzaileek. Barikuro, arrastiko 19:00etatik aurrera bina partidu izango dira apirilaren 11 eta 25ean. Gero partiduetako irabazleek semifinalak jokatu dituzte maiatzaren 2an eta 9an, eta, azkenik, finala maiatzaren 15ean egingo da, San Isidro egunean.

Partiduak:

Apirilak 11

Lopez Aldai – Mendiguren II
Eguzkiza – Gorka Bilbao

Antxia – Ajuria
Meabe – Solozabal

Apirilak 25

Eneko Ogara – Asier Bengoetxea
Inunziaga – Atutxa

Aurtenetxe – Zabala
Etxebarria – Erauskin

Derioko Padel klubeko neskak txapelkun gelditu dira

Martxoaren 14an eta 15ean, Espainiako Padel Txapelketa egin zen Getxoko Jolaseta klubean. Bertan, Derioko Padel klubeko neskak txapelkun gelditu ziren bigarren mailan, Kataluniako Fibra Sport klubeko neskei 3-2 irabazi ostean. Garaipen horren ondorioz, taldea lehenengo mailara aipatu da. Lehiaketa horretan, besteak beste, Valentzia, Madril eta Mallorcako klubek hartu zuten parte.

Herri plataformak Txorierri

Txorierriko herrietan be, Euskal Herri guztiko beste hainbat herritan moduan, herri plataformak sortu dira azken aldian. Ezker abertzalearen ideiak instituzioetatik kanpo ez gelditzeko, bide berriak jorratzen hasi dira ikuspuntu ezkeriar eta abertzale batetik. Larrabetzun "Larrabetzu Euskal Herria", Lezaman "Sasoiz", Zamudion "Zamudiozarron Irrintzie", Derion "Derio Aurrera" eta Sondikan "Eginez" herri plataformak aurkeztu dira. Loion be, laster aurkezteko asmotan dabilta.


Txorierriko pilota eskolen arteko txapelketa

Martxoko azken asteburuan, hilak 29 eta 30, hasiera emongo jako Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko pilota eskolen arteko lagunarteko txapelketari. Urtero pilota eskola batek antolatzen dau eta aurtengo Zamudioko taldeari dagokio ardura hori. Umetxo aurreko, umetxo, ume, gaztetxo eta kadete kategorietako partiduak izango dira, Txorierri guztiko herrietako frontoietan. Guztira, 114 gaztek hartuko dabe parte txapelketan. Finalak ekainaren 22an, domekaz, jokatu dira Zamudioko frontoian.



Zerurena Jateak

Erremonterri Kalea, 22
Tfn: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)



BAR TXIKI
Lahedakari Leizeola, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Tel. 94 452 04 68

Restaurante

SAN ISIDRO

UNION DE LOS EMPRESARIOS DE LA TABLA PUNTERA DE SAN ISIDRO

ESKUNTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Teléfono 94 451 31 78
Fax 94 451 11 18

Mugaila: Sondika, s/ 25
48100 BORDO

- Kanta erlijioa
- Lasterkariak
- Jantziak
- Jantziak
- Jantziak
- Jantziak



GAMINIZ
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Pasaia Itekinak
Harrera 212
48101 ZAMUDIO BIZKAIA

Tel. 94 431 70 26
Email: gaminiz@euskalnet.net
www.gaminizsateandri.com

"Iturrian zer dago?" ikuskizuna Lezaman

Xukan taldeak Iturrian zer dago? ikuskizuna ekarriko du Lezamara apirilaren 5ean. Obra horretan dantza, trikitixa eta bertsolaritza elkartzen dira. Emanaldia iluntzeko 8etan hasiko da pilotalekuan, eta Udalak antolatu du.

Iturrian zer dago? lanak antzinako garbileku batean gertatutako istorio bat aurkezten digu. Bertan topo egingo dute bogada egitera joan diren ama-alabek eta, baserritik, azokarako bidean, muturra berotu ostean trago bat ur edatera doazen aita-semeek.

Dantzaz, trikitiaz eta bertsolaritzaz baliaturik, Xukanek talde bion arteko

sedukzio eta maitasun jolasak ezagutaraziko dizkigu.

Ikuskizuna era guztietako entzuleei zuzenduta dago. Sarrerak apirilaren 3a arte egongo dira salgai liburutegian, 3 eurotan. Apirilaren 5ean, 4 eurotan salduko dira pilotalekuan.



Larrabetzuko saihesbideko obrak aurreratuta

2017an egitekoak baziren ere, Larrabetzuko saihesbidea egiteko lanak datorren urtean hasiko dira. Herri Lan eta Garraio Sailaren diputatuak hala azaldu zuen Batzar Nagusietan martxoan. Diputazioak eta Udalak beharrezkotzat jo dute beharrak aurreratzea, "ibilgailuek derrigorrean herritik sartu behar izan ez dezaten". Aurreikusitakoaren arabera, lanak hamabost hilabeteren buruan amaituko dira. Obretarako inbertsioa 7.439.384 eurokoa izango da.

Larrabetzuko gaztetxea Kultur Etxera eramango dute

Kultur Etxea Anguleri jauregian kokatzeko asmoa dauka Larrabetzuko Udalak. Hala egingez gero, herriko gaztetxea kultur etxearen oraingo egoitzara aldatuko dute. Bertan, kultur ekintzak egiteko aukera izango dute gazteek. Lokala eraberritzeko 213.921 euro inbertituko dira. Era honetan, ingurune eta eraikin horren erabilera berpiztu nahi da.

Txorierriko batzokiei buruzko liburua kaleratu berri dute

Alberto Gorospe kazetariak *Batzokis de Bizkaia: Txorierrir-Uribe Kosta* liburua aurkeztu zuen Batzar Nagusietan martxoaren 18an. Gorospek orain urte batzuk ekin zion Bizkaiko batzokiei buruzko ikerlana egiteari, eta dagoeneko beste liburu bi ditu argitaratuta, Bilbo eta Enkarterriko batzokiei buruzkoak, hain zuzen ere. Argitaratu berri duen lan honetan, euskal nazionalismoak Uribe Kosta eta Txorierrin izandako historia berreskuratzen du, eskualde horietako batzokietan zehar egindako ibilbide bat dela medio.

Tenis eta paddle ikastaroak Loion

Loiuko Udalak tenis eta paddle ikastaroak antolatu ditu martxotik ekainera bitartean. Tenis ikastaroa 6 urtetik 15era bitarteko gazteei zuzenduta dago. Adinaren arabera, bost talde osatuko dira eta klaseak zapatu edo domeketan emango dira. Beste alde batetik, paddle ikastaroa helduei zuzenduta dago eta bariaketan izango da.

Kasu batean nahiz bestean, taldeek 8 lagunetik 12ra bitartekoak izan beharko dute, ikastaroak egin ahal izateko. Loion erroldatutakoek 20 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 40 euro.

Matrikula ordaintzeko epea apirilaren 18an bukatuko da. Argibide gehiago nahi dituenak Udaletxean eska dezake.



Gestión Zamudio
Abokatuak eta Fisikala
Jon Vázquez García
ABOKATUA, FISIKOLARIA
García 7, 2do. planta
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 454 1111 - Fax: 94 454 1112
E-mail: g7@gestión-zamudio.com

ERREKA
ETXEA
Egiteko menuak, auzokideen menu berezia, karta, espesialak, jantziak, txakurak, txakurak
Amara, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tel.: 94 452 14 19
Fax: 94 452 26 29

CAFETERIA
IAZI
Eguneko menua eta
Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Teléfono 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

HIRUKOTE
ERREMENTERIA
Pablo Lezama
-Metalezko eralkuntzak
ateak, eskailerak, tarteak, sarrak,
burdin hesiak, balkoi korritak,
eskudeiak eta giradun ateak
-Forja artistikoa
altzarak, aheberrak, mahak,
malkiak, lampak, apalategiak...
-Auzokideen eta industrien
komunitateetako mantentze lanak
-Altzairu herdoilgaitz eta titaniozko
lanak

LEJARRENE
JATETXEA
GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)



Merkabilbaoren ordezkoa Erletxen jartzeko aukera aztertzen da. Azkenik, Zorrotzako hiltegia Galdakao eta Larrabetzu arteko gune batera ekartzea aurreikusten da.

Horretaz gainera, herriko jaietako kartelen XVI. lehiaketa antolatu da. Parte hartzeko oinarriak liburutegian eskura daitezke apirilaren 1etik aurrera. Izena emateko epea maiatzaren 2an amaituko da.




Kukubiltxok FETEN saria jaso zuen Gijónen

Otsailaren 18an, Umeentzako Europako Antzerki Azokaren XII. edizioa (FETEN) egin zen Gijónen. Bertan Kukubiltxoren Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina jotzen obra saritu zen. Larrabetzuko antzerki taldeak obraren gaztelaniazko bertsioa estreinatu zuen bertan, eta Epaimahaiak musikari eman zioten saria. Aipatu beharra dago musika Oskorri taldeak jarri ziola antzezlanari.

Epaimahaia, besteak beste, Artez aldizkariako Carlos Gilek eta Escalante antzerki eskolako Vicent Vila Berenguerrek osatu zuten. Gilek honako hau idatzi zuen ikuskitunari buruz: "...antzezlanaren mezuak ekologismora jotzen du eta inposatzeari aurre egiteko aukera erakusten digu".

Era berean, bere kritikan azpimarratu ditu Oskorriren musikak sortutako giro hunkigarria eta Kukubiltxok Gijóneko umeekin lortutako berehalako komunikazioa.



Behargintzak Pablo Lezkano larrabetzuarrari eman dio Txorierri saria

Urrian, enpresak sortzeko ideia edo ekimenen lehiaketa prestatu zuten Txorierri, Mungialde eta Uribe Kostako Behargintza zentroek. Lehiaketak helburu bi ditu: alde batetik, enpresa-kultura zabaltzen laguntzea, eta, bestetik, langabeak lan munduan txertatzeko bide berriak aurkitzea.

Sariak otsailean banatu ziren eta Pablo Lezkano larrabetzuarrak

Txorierri saria jaso zuen. Berak Hirukote Hierro & Forja izeneko proiektua aurkeztu zuen. Enpresa horrek artisau-lanak egiten ditu burdinaz eta forjaz, baina beste material batzuekin konbinatuta.

Enpresa Erletxe industrialdean jarri du martxan, eta bertan, besteak beste, metalezko eraikuntzak, balkoi jarraituak eta titaniozko lanak egiten ditu.



Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitaz Trippyra, Deriara

Ibabeako Kalea Baxo
DERIO

UMEENTZAKO MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Fax: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Ganix
DISEÑADORAS • ORNAMENTALISTAS

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrera Goiko Kaleatik)
Tfnos.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

ARTIZAR
MARKOA JATZEKO TAILERRA

Jard. Ajarik, 3
Tfn. 94 453 01 50

48150 SESENTIACA
Bizkaia

Ile-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txerriko etorbidea, 8
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEIRE BEGOÑA
ILEAPAINDEGIA
UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

Txaro Arteaga, Emakundeko zuzendaria:

“Egungo neskek gizonezkoen baloreak barneratzen dituzte”

Emakumearen Astea dela eta, Derioko Sutondoan elkarteak Emakundeko Txaro Arteaga gonbidatu zuen hitzaldia ematera martxoaren 4an. Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emakumezkoen asoziazionismoaren garrantziaz hitz egin zuen. Guk berarengana jo genuen emakumezkoen egungo egoeraren berri izan nahian.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Martxoaren 8a Nazioarteko Emakumearen Eguna da. Zein da egun honetako errebindikazioa?

Esparru pribatuan zein publikoan emakumeok desberdintasun-egoeran gaudela, batez ere. Beraz, berdintasunaren aldeko borroka konpromiso politiko bihurtu da mundu mailan. Herri guztiek honetan diharduen erakunderen bat daukate. Aurrerapauso garrantzitsuak eman badira ere, informazio eza handia dago oraindik eta administrazioek sentsibilizazio-kanpainak egitea ezinbestekoa da.

Emakumezkoen %32ak etxetik kanpo egiten du lan...

Bai, baina etxean egiten den lana ere kontuan hartu behar dugu, produkzio-lana (diruaren truke egiten dena) aurrera egiteko beharrezkoa da-eta. Arropak garbitu edo ondo elikatu ezean, nola joango ginateke lanera? Eta, noski, behar hori emakumezkoen esku uzten da, etxetik kanpoko lana izateko aukerak zailduz. Etxeko lana barne-produktu gordinean sartuko balitz %40a izango litzateke. Emakumezkoek gizarterako doan egiten dugula lan esan nahi du horrek. Gainera, guk munduan egiten den lanetik %52a egin arren, aberastasunetik %10a baino ez daukagu, gizonezkoek nagusiki lan ordaindua izaten baitute. Orduan, gizonezkoek eta emakumezkoek etxean zein lanean presentzia bera izatea lortu behar dugu desberdintasun-egoera hori buka dadin.

Badirudi gaur egungo neskek ikasi dutela...

Gehienek ekonomikoki aske izan nahi izateari primeran deritzot, baina emakumezkoen ohizko lana baztertzeko dute, zoritxarrez. Nahiz eta gaur egun mutilek eta neskek hezkuntza bera jaso, gizonezkoen baloreak baino ez dituzte barneratzen. Gazteak etxetik kanpoko lana izateko prestatzen dira, baina zer gertatzen da etxeko lanarekin? Hori ere oso garrantzitsua dela irakatsi behar zaie. Eskolak zein gurasoek zeregin haundia dute horretan.



Gizonezkoek eta emakumezkoek esparru guztietan presentzia bera izatea aldarrikatzen du Txarok.

Zeintzuk dira emakumezkoek topatzen ditugun oztopoak lan munduan?

Lehenengo eta behin, enpresa-kultura. Pixkanaka-pixkanaka lana ondo egiteko gauza garesti frogatzen ari gaitzaizkie gizonezkoek. Horretara, bada, gure lekua irabaziz goaz esparru guztietan. Hala ere, haiek garrantzia galtzen ari diren arloetan sartzen uzten gaituztela ematen du. Beste alde batetik, geure buruari geuk ere oztopoak jartzen dizkiogu. Lanbidea aukeratzeko orduan, besteekiko zainketarekin zerikusia duten ikasketak aukeratzen jarraitzen dugu eta horrek gauzak zaildu egiten dizkigu. Era berean, etxearen pisu guztia gure gain dagoenez, lanean gora egiteko aukerari uko egiten diogu askotan. Gizonezko bati zein den bere lanbidea galdetuz gero, abokatua, igeltseroa edo suhiltzailea dela esango dizu. Emakumezko batek, alderantziz, abokatua, etxekoandrea, ama, alaba, emaztea... dela erantzungo du. Gizonezkoek balore horiek ere barneratzean datza borroka.

Emakumezkoek gure egoera aztertu eta hainbat helburu jarri diogu geure buruari. Familia-eredua aldatuz doa?

Bai. Ohizko ereduak kalte egin digu bai gizonezkoek bai emakumezkoek. Gu desberdintasun-egoeran gaudenez, lehenago konturatu gara. Laranja erdi izateko hezi gaituzte, baina laranja osoa izan behar dugu. Bakoitzaren positiboa hartu eta orokortu egin behar dugu.

Emakundek emakumeentzako Ekintza Positiboko hirugarren Plangintza dauka esku artean. Zertan dantza?

Desberdintasun-egoeratik abiatzen gara eta aukera-berdintasuna lortzeko desberdintasun hori tratatu behar dugu. Lanpostu baten aurrean onenak hartu behar dira, baina parekotasuna bilatuz. Orduan, emakumezkoa laguntzean dago gakoa. Dena dela, diskriminazio positiboa bitarteko bat baino ez da eta esparru guztietan gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna lortzen denean desagertuko da. Halaber, hainbat kasutan gizonezkoen alde jokatu beharko dugu.

Mikel Zarateri omenaldia (2004, urtarrila-apirila)

Aikor!-en urtebetetze jaiegunean bertan egin eban Zorritzketan-ek omenaldia-
ren aurkezpena, irakurleok ondo dakizuen moduan. Harrezkero, ospakizun hori
prestetako lanak hasita dagoz. Aikor!-ek itxi deuskun leihatila hau guzti horren eta
Mikelen inguruko beste gauza batzuen barri emoteko erabiliko dogu.. Oraingo
honetan, Mikel bera literaturgilea ezeze hizkuntzalari jakintsua be izan zanez,
beste hizkuntzalari jakintsu baten ekarpena dakartsuegu. Hona hemen:


“Lezamarrok bata-besteagaz euskeraz” **(ala *batak* besteagaz lezamarrok euskeraz?)**

Zorritzketan alkarteko euskaldun ere-
dugarriek ikurritz eder hau erabiltzen dabe
herritarren aurrean akulu legez: “Batak
besteagaz lezamarrok euskeraz”. Ideia
eder bezain oinarritzko honek dinoana da,
euskalduna euskaldunagaz erdaraz dabile-
nean, euskara lur barik, etxe barik, lagu-
narte barik lagatzen dala eta erdarari
saltzen jakola herria, gaztelara bihurtuz
Mikel Zarateren jaioterriko berbeta, taber-
nakoa eta, atzenean, bihotzekoa.

Ikurritza bera halan idatzi bada, esaldia
erredaktatzeko unean gramatikaren galba-
hetik iragazi dalako da, seguru asko,
“Euskaraz egin” perpausak ergatiboa, -k
eskatzen dauala-eta. Harritzekoa ez dana,
ze Euskaltzaindiko Gramatikan bertan
bere badator “Peruk eta Mirenek batak
bestearen etxea erre dute”. (E.G.L. 69).
Baina lehen begituan ontzat emon leiteke-
anak, sakonerago jo ezkerro ez dirudi hain
txukun.

Zalantza uneetan, geure senak dinos-
kuniketik gora abiatu gaitezkan, badoguz,
zorionez, bide finakoak. Batetik, betiko eus-
kalduna, euskararen kodea garbi daukana;
bestetik, klasiko bilakatu jakuzan idazleen
bidea.

“Ezin koiu ez batak, ez bestiak bata-
bestea” (Maria Arrieta 2002-11-01) neure
amari entzun eta koadernoan idatzia da
euskaldun seguruaren lehen iturria.
Ganera, Euskaltzaindiaren Orotariko
Hiztegia hartzen badot lagun, halako adibi-
de zalantza bakoakaz topauko naz: “Ez
dozuela bata bestearen jarraian joan
beharra”. (Añ LoraS 63). “Egiten dabe
pekatu bata bestia ikusi ezin badabe”.
(Astar II 25). Berba baten, errez kontura-
tzen gara, Bata besteagaz euskeraz dara-
bilgunean ergatibotasuna lezamarrok
sintagmak daroanez, ez dala esaldian



Mikel Zarate, oraindik ere hausnarketa sortzaile.

ergatiboko besterik –k-rik behar, ez dala
batak. Berez, bata-besteren erabilera alka-
rregaz-en antzerakoa da, izenordainetan
alkarkari edo erreziproko erara jokatzek
dauana. Hori nahiko arrazoi ez balitz,
gogoan izan daigun Lezamako euskaldu-
nak batak besteagaz dinoanean singularra
ulertzen dauala Batak besteagaz egiten
DAU euskeraz, bestera, batzuk besteakaz
esango litzateke, hau da, batzuk besteakaz
lezamarrok. Goiburu horretan, beraz, leza-
marrok da pluraltasuna emoten dauana,
ez batak besteagaz, baita ergatiboa daroa-
na bere, lezamarrok.

Arauaren alde didaktikoari begiratzen
badeutsagu, Luis Baraiazarrak marra era-
biltzea gomendatzen dau holakoetan, hau
da, BATA-BESTEAGAZ. Egia esan,

Orotariko Hiztegian bere badatoz marra
darabilien idazleak.

Aren baten, marraz baliatu izan bagina,
ez litzatekean aztertzen dihardugun ataza
hau agertu bere egingo, BATA-BESTE-
GAZ lotuta ikusirik ez da –k ergatibokora-
ko tokirik-eta.

Horrenbestez, Zorritzketako txorierritar
jator-jatorren goiburua polito-polito plaza-
ratu leiteke holantxe idatzita: LEZAMA-
RROK BATA-BESTEAGAZ EUSKERAZ
(nahiz bata-besteari).

Osasuna eta urteko txakolina!

Testua: Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Zamudioko gazte asanblada: bizi eredu eta ideia berritzaileen baratzea

Testua eta argazkia: Zamudioko Gazte Asanblada

Zortzi urte dira Zamudioko Gazte Asanblada (ZGA) sortu eta gorpuztu zela, Zamudioko gazteen beharrezanean erantzuteko; denbora guzti horretan herritarren eguzkia, udaletxearen euria, gazteen haizea eta kalean egotearen hotza ezagutu ditugu. Denbora aurrera doa eta oraindik ere baratzeak bere fruituak ematen jarraitzen du, ereitearen ondorioz batutakoak.

Urte hauetan, hainbat gaztek eta ez hain gaztek ZGAren guardasola erabili eta zaindu dute instituzioek gazteentzat helarazten duten atontatu-eredutik babesteko eta aldentzeko, horren aurrean gazte izateak dituen aberastasun eta sormen iturriak aukera erreal bezala gauza daitezkeen. Belaunaldiz belaunaldi bizi eredu hori hobetuz eta ideia berritzaileak burutzen doaz, eta hori pozik egoteko modukoa dok!

Gazteen arteko elkar ezagutza eta harremana estutzea, herriko taldeen arteko komunikazioa handitu eta bertatik euskaral kulturaren oinarritutako herritar mugimendu bizi eta aberatsa bultzatzea, gazteoi dagozkigun beharrak eta nahiak, arazoak eta ametsak betetzen laguntzea eta guzti horretarako dugun altxorrik preziatuena eskaintzea izan da, eta izango da, gure ekarpen zintzoa: herriko gazteongandik sortua, herriarentzat eta gazteentzat lan egitea alegia.

Horregatik, gure isla izan nahi duen VIII. urteurreneko jaialdi bat prestatu dugu, adin eta esparru guztiak biltzen saiatzen dena; animatu eta parte hartu gazte sentitzea delako behar den ezaugarri bakarra.



ZGAko gazteek hainbat ekitaldi antolatu dituzte martxo eta apirilera.

Egitaraua

- * **Martxoaren 10etik 31ra bitartean:** II. Argazki Lehiaketa.
- * **Martxoaren 29a:** ZGA-ren kanta, eta jaialdiaren aurkezpena. Egurdiko 12etan, dorretxean.
- * **Martxoaren 31tik apirilaren 16ra bitartean:** ZGAren ibilbideari buruzko argazki erakusketa, dorretxeko erakusketa gelan.
- * **Apirilaren 4an:** "Txapela bete bertso" saioa, gaueko 9etan, dorretxean.
- * **Apirilaren 5ean: JAIALDIA:**
 - Goizeko 10etan: txupinazoa, irrintzia eta txalaparta. Ondoren: kalejira "Bertoko tresnen elkartea" eta "lru bat" dantza taldearekin herriko zehar.
 - 11:30etan: pilota partiduak frontoian, Zamudioko Pilota Eskolaren eskutik.
 - Kalejira albokari eta joaldunekin, herriko zehar.
 - Egurdiko 1etan, triki-bertso-poteoa.
 - Egurdiko 2:30etan herri bazkaria, eskolan.
 - Ondoren, Aitor Txarterina kontu kontalaria.
 - Geroago, ZGAren zozketa eta argazki lehiaketaren sari banaketa.
 - Arrastiko 6etan gazte olinpiadak eta murala herriko plazan.
 - Arrastiko 8:30etan aldarrikapen kalejira "Txatun Gaitero"-rekin eta hankapaluekin lagunduta.
 - Gaueko 10etan, suzko malabareak plazan eta ondoren... KONTZERTUAK: SEN, GATIBU eta URGABE.
- * **Apirilaren 6an:** Antzerkia dorretxean, arrastiko 7etan.
- * **Apirilaren 14ean:** Txupinazo jaurtiketa.


**LIBRERIA
SONDIK
LIBURUDENDA**

ARTE IDIERRAK, ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiatuak, kuadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
puzpuzgintza eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)



LIBURUDENDA BIKERDENDIA

ZAMUDIO

Garbino Kalea, 5
Telefono / Fax: 94 462 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, linbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73


CONDAT

LUBRIFICANTS

Tfnoa: 619 415 585
J. A. Zabala

- Taladrinak
- Koipeak
- Deformazio olioak
- Mantenimenduzko olioak

“Idatzi dudan lehen poema da saritutakoa”



Iskander Barrena Institutuko azken urtean ari da. Larrabetzun orain dela 18 urte jaioa, skater moduan ezagutzen dugu guk. Baina, antza denez, idazten ere trebea da. Azkue lehiaketan bigarren saria irabazi berri du, eta AIKOR!-ek beragana jo du.

“Juan Luis Goikoetxeak, Goikok, klaserako lan moduan jarri zigun poema bat egitea. Nik bat egin nuen, eta, irakasleari gustatuta, bidali egin nuen Azkue sariketara”. Horrela azaldu digu Iskander Barrenak, Azkue lehiaketan bere poemarekin bigarren saria jaso duen larrabetzuarrak. Eta irakurtzea gogoko badu ere, orain arte idatzi duen lehen poema da saritutako hau. Ez du sarri idazten, baina gogoia piztu zaio la esan daiteke orain. Eskolarteko sariketarako, ordea, berandu dela deritzo. “Institutuan azken kurtsoan nago, eta sariketara hauek gazteagoentzat dira”, aitortu digu. Inoiz ez da berandu baina. Euskal Herriko idazleak irakurtzea gustuko duela dio, eta Bernardo Atxaga omen da bere kuttuna.

Poema idazteko ohiko gaia hartu zuen, maitasuna. “Eta gauza onak eta gauza txarrak sartu ditut”, gaineratu du berak, eta horrela orriotan ikusten dugun poema hau sortu zuen. Irakasleari, oso ona iruditu zitzaion bidali zuen gero lehiaketara, eta, antza denez, epaimahaikoei ere balekoa iruditu, bigarren saria lortu du Iskander Barrenaren lanak. “Idatzi dudan lehen poema izan da hau”, esan digu berak, eta badirudi aurrerantzean poema gehiago idatziko dituela. Orain, baina, ez dauka denbora askorik Iskanderrek, frontoian ere fuertea ari delako esku pilotan.

Testua: Patxi Gaztelumendi
Agazkia: Itxaso Marina

ZU IKUSTEAN

Zu ikustean,
hotzikara nabaritzen dut
nire gorputzean;
zu hurbiltzean,
ezintasuna hasten zait
nire barranean;
zu sentitzean,
zerurako bidea ikusten dut
nire begietan.

Lo egiterakoan,
zure aurpegia izaten dut
nire gogoan;
amets egitean,
zure gorputza nabaritzen dut
nire gainean;
baina altxatzean,
bakarrik nagoela ikusten dut
nire etxean.

Zure ileak,
haizearekin batera nahasten dira
nire eskuan;
zure eskuak,
hemendik hara mugitzen dira
nire buruan;
zure ezpainak,
itsasten, lotzen dira
nire ezpainetan.

Baina, zure ezinak,
horma bat sortu du
gure artean;
zure ihesak,
zulo bat egin du
nire bihotzean;
zure falta izateak,
gero eta gehiago jartzen nau
nire egonezinean.

Iskander Barrena Zubiaur

Tximintx Derioko euskara alkarte berria

Testua: Jose Angel Mentxaka / Argazkiak: Itxaso Marina

Otsailaren 26an Derioko euskera talde barria aurkeztu zen herrikideen aurrean. Bertan esandakoa laburtzen saiatuko gara.

Sarreran aipatu zenez, Derioko herriak bazeraman hiru aste kartel berezi batzuk ikusten, laranja koloreko zomorro antzeko batzuk karteletik gora igotzen "adi" eta "hementxe gagoz" leloakaz batera. Bazen garaia misterioa argitzeko. Ez ziren zomorroak, tximintxak baino. Derioko euskara alkartearen izena eta logotipoa.

Bilera Mankomunitateko euskara teknikariak hasi zuen eta Txorierriri buruz eza-gutzen diren datu soziolinguistikoak azaldu zizkigun. 1981 eta 1996ko datuak dira. Bertan euskaldun kopuruak (gai direnak euskaraz normal aritzeko), elebidun hartzaila kopuruak (euskaraz ulertu bai, baina ez direnak gai era normalizatuan aritzeko) eta azkenik erdaldun hutsen kopuruak agertzen ziren. Argi geratu zenez, horiek ez dira erabilpenaren estatistikak, ezagutzearenak baino. (Ondoko tauletan aurkituko dituzue 1996ko datuak).

Txorierriko beste euskara taldeek hartu zuten hitza gero. Zamudioko Lagatzuko



Tximintx euskara taldekideek proiektu berria aurkeztu zuten Derioko Aretoan.

ordezkariak, Lezamako Zorritzketanekoak eta Larrabetzuko Arrekikilekoak. Galdera bi hauek erantzun zizkiguten: Noiz eta zergatik sortu zen euskara taldea eta zein den euren zeregina gaur egun.

"Konbidatuen" txanda amaitu ostean, "etxekoan" txanda hasi zen. Lehenik eta behin, nondik datorren Tximintx izena azaldu ziguten. Enteratu ginen Gotzon Garatek jasota duela derioztarrak tximintx ezizenaz

MUEBLES
Artezale
DECORACION
Clásico y Rústico

Bambola Urbale 47-1 Tel. / Fax: 944 578 852
48940 GALDAKAO
Gomazubi 49-16 Tel. / Fax: 944 954 141
48156 LEZANA

Artezale
e-mail: artezale@zedma.com

TOLDOS
ZAMUDIO S.L.

- Toldoak saldu eta alokatzea
- Toldoak konpondu eta ipintzea
- Eguzki toldoen mantentze lanak

Eskatu aurrekontu konpromiso barik

Pol. Torrelarragoiti P-6 A-4
48170 Zamudio (Bizkaia)
Telf. 94 452 35 85


ezagunak zirela eta hark Resurreccion Maria de Azkuegandik hartua zuela. (esan-dakoa alboan duzue).

Alkarteko arduradunaren ahotik eza-gutu genituen taldearen asmoak eta urterako gutxi gorabeherako egitaraua. Ideien faltan ez daude behintzat, zeren asmoen zerrenda nahiko luzea zen.

Amaitzeko bazkide kanpaina handi bati ekingo diotela azaldu ziguten, Derioko ahalik eta euskaldun gehien bazkide bihurtzeko asmoa dagoela, kuota bat egongo dela, 15 eurokoa, arrunta, eta 10 eurokoa, berezia, bazkide-txartelak banatuko direla eta antolatzaren diren hainbat ekintzetan prezio merkeagoa izango dutela.

Hau guztiau azalduz diptikoa zabaldu zen ekitaldian bertan, eta taldean parte hartzeko jendea animatuz amaitu zen aurkezpena, baina ez aurretik gogoratu barik kontaktuan jartzeko erak.

Derioko datu soziolinguistikoak. 1996.ekoak



- Euskaldunak
- Elebidun hartzaileak
- Erdaldunak

Bazkide izateko edo informazioa jasotzeko:

Derioko liburutegia (Amaia)
Txepetxa euskaltegia (Belen)
Mapfre aseguruak (Esther)
Taldea asteazkenero biltzen da
7:00etan, Kultur Aretoa (posta elektro-
nikoa: tximintx@euskalerrria.org)

Zergatik Tximintx?

Berbek esangura propioa daukie, eurakan daroez jatorriak eta ametsak. Gura izanez gero, dar-dar eragiten deuskue, batzutan. Berbak ezin geinkez esanguraz hustu, baina bete bai.

Tximintx. **Gotzon Garate**, Atsotitzak bilduma, 3001. esaera: "Derio, tximintx erria". Bilduma berean (12.624. esaera): "Ona da tximintxa, kentzeko loaren ditxa". **R.M de Azkueri** hartuko berbea da, hamazortzigarren mendean bizi-bizi egoana. **Juan Antonio Mogelen Peru Abarka** liburuan be badaukagu berba honen testigantza, Peruk Maisu Juani haxe dinotsanean: "Obeto egingo zenduan zeuk bere lo egin bazendu, gaba alperrik igarota, ardi ta imitxa txatxar batzuk gora-bera".

Gipuzkoan *tximintxa*, Bizkaian *tximintxa*, dino **Gotzon Garatek**. Latinez *Cimex-icis*, espainolez *chinche*, frantsesez *punaie*, ingelesez *bedbug*. Gaur egun galduta dagoan arren, derioztarrak izendatzeko berba zaharra da *tximintx*; Lezamako *zorrien* lehengusu-lehengusinak gara, antza, jakin ez dogun arren!

Europa hiztegiak damoskun definizioa kon-tuan hartu beharrekoa da, bai horixe. Halantxe dino: "Bereziki ohe eta etxe zaharretan ugaltzen den intsektu odol-zurupatzaile kiratsua". Honen aurrean, zer erremedio! geure erara moldatu dogu definizioa, atondu.

Lehen esan dodan lez, berbak esanahiz bete daikeguz, botila urez, edo ardoz, egin daitekean moduan. Gure ohe eta etxe zaharrak euskara-siestan dagoan herria dira, Derio. Ugaltzearena gustatu jaku, zenbat eta gehiago izan, orduan eta odol gehiago atarako dogulako. Odola, edo gauza bera dana, sanetan, sakon sartuta dagoan herritarren euskara. Egunerokora eta indartsu!

Testua: Atotz Goikoetxea



Jendetza bildu zen ongi etorria emateko Tximintx euskara talde berriari.

ZEUK AUKERATU
ARRAKASTA EDO... ARAKASTA

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S. COOP.
LANDIDE-HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRALA

HEZKUNTZA ESKAINTZA

HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA
-MEKANIZAZIOA
Maila orleina -2.000 ordu-
-PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
Goi maila -2.000 ordu-
-MEKANIZAZIO BIDEZKO EKOIZPENA
Goi maila -2.000 ordu-

KIMIKA
-INGURUMEN -KIMIKA
Goi maila -1.400 ordu-

ELEKTRIZITATEA ETA ELKTRONIKA
-ENBILGUTZIO ETA KONTRAK
SISTEMA AUTOMATIKOAK
Goi maila -2.000 ordu-
-INFORMATIKAKO TELEKOMUNIKAZIO SISTEMAK
Goi maila -2.000 ordu-

MERKATARITZA ETA MARKETINA
-KUDEAKETA KOMERTZIALA ETA MARKETINA
Goi maila -1.400 ordu-

BATXILERGOAK

BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

ATEAK PUBLIKOARENTZAT ZABALTZEKO EGUNAK:
MAIATZAK 8 ETA 12
EKAIAK 5
(ARRATSALDEKO 18:30ETAN)

AURREINSKRIPZIOAK 2003/2004 IKASTURTEA
MAIATZAREN 2TIK 9RA:
-BATXILERGOA
-ZIKLOETARAKO "SARRERA PROBA"
AZTERKETA EGIN BEHAR DUTENIK
EKAIAREN 2TIK 11RA:
-ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

Untzaga Ibilola Kalea, 1 (Derioko Apatzaga Regilaren ondoan) 48160 Derio - Bizkaia Tfno: 94 403 40 60 - Faxa 94 403 40 61
E-mail: info@txorierri.net - http://www.txorierri.net

Herri bat geroa lantzen AEKrekin

Apirilaren 8an, goizaldean, Korrika 13 Txorierrira helduko da. Egun horretarako zein aurreko egunetarako hainbat ekintza prestatu dira euskararen jaia ospatzeko.



Testua: Itxaso Marina

Apirilaren 4an, arratsaldeko 6,30etan Mauletik aterako da Korrika 13. Hamar egun geroago eta 2.150 kilometro egin ostean, euskararen testigua eskuz esku ailegatuko da Iruñera. Guztiok dakigunez, AEKk antolatutako euskararen aldeko ekitaldia da Korrika. Lasterketa honek helburu bikoitza du: alde batetik, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia piztea eta, beste alde batetik, gauz-eskolen zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Baina Korrika ez da ekitaldi bat besterik gabe, Euskal Herriaren geroa lantzeko tresna baizik.

Korrikaren arduradunak buru-belarri dabilta lanean: orain ekitaldiak prestatzen, gero herriko batzordeekin bilerak egiten, ondoren... Izan ere, euskararen aldeko 13garren lasterketa aurki ailegatuko da gure eskualdera eta egun horretarako denak prest egon behar du. Apirilaren 8an, goizaldeko 00:30ak inguruan, Erandio Goikotik sartu eta Txorierrira osoa zeharkatu ondoren Mungiarako bidea hartuko du. Nahiz eta berandu xamar ailegatu, jai handiko eguna izango da. Herri guztietan triki-poteo, mus txapelketak, enkanteak eta antzeko ekitaldiak antolatu dira itxaronaldia jasagarria

gerta dadin. Gainera, beste urteetan lez, umeentzako korrika txikia izango da eskoletan. Ildo honetan, arduradunek pazientzia apur bat eskatzen dute: "Egunez zein gauez kilometro asko dira egin beharrekoak eta beranduago etortzea gerta daiteke. Beraz, pazientzia izan behar dugu ahalik eta jende gehiena egon dadin Korrika heltzen denean". Behar guzti honetan, herrietako batzordeen eta taldeen laguntza ezinbestekoa dela gogoratu digute.

Dena dela, Korrika ez da egun bateko gauza, eta Korrika Kulturalaren barruan

beste ekintza batzuk prestatu egin dira. Horrela, joan den martxoaren 1ean Korrika 13 aurkeztu zen Parke Teknologikoan. Egun horretan, Euskal Herriko laburmetraien emanaldia ere egon zen.

Hilaren 20an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Zamudioko kiroldegian eta Txan magoa Deriokoan egon ziren. Halaber, Bihotz Bakarti Klubekoek musika eta poesia ekitaldia eskaini zuten Derioko institutuan. Martxoaren 23a eranskailu eta material salmenta eguna izan zen.



Bidea luzea bada ere, geroa lantzen jarraituko du herriak.

Apirilerako ekitaldiak

Apirilaren 8an hainbat euskaltzale bilduko dira euskararen alde Txorierrin. Aste osoan zehar ekitaldi asko izango dira, besteak beste honako hauek:

Erandio Goikoa: apirilak 5, herri afaria.

Sondika: apirilak 5, herri bazkaria.

Loiu: apirilak 5, herri afaria.

Derio: apirilak 4, herri afaria.

Lezama: apirilak 5, txakolindegietatik bisita.

Apirilak 6, txakolin botilen etiketa erakusketa.

Apirilak 8, txakolin kata eta dastatzea. Txokolatada.

Zamudio: apirilak 8, 20:30etan Dorretxean, poesia eta musika saioa Kirmen Uriberen eskutik.

Apirilak 11, bertso-afaria. Unai Iturriagak, Iratxe Ibarak eta Etxahun Lekuek botako dituzte bertsoak.

Larrabetzu: apirilak 5, herri bazkaria.

Apirilaren 13an Iruñara joateko autobusak jarriko dituzte antolatzaileek.



Euskararen testigua eskuz esku ailegatuko da Iruñera aurtén.

Gero bat gaurdanik

Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak jarri diote ahotsa aurtengo Korrikaren abestiari. Era berean, hitzak Igor Elorzarenak eta musika Bingen Mendizabalena dira. Nahiko lasaia bada ere, ondo islatzen du Korrikaren mezua:

arr
err
irr,orr,urr
arr, harri
err, herri
irr, irri
harri herri, irri urri

ga
ge
gi, go, gu
ga, gara
ge, gero
gu, gure
gu gara gure gero

geu gara harri
geu urre gorri
geu gure orri
gure urri, gure irri

harriz harri gora
gure gerogura
irriz gara
gero, gu herri gara

Ez dok hamairu
Ez da malefiziorik
Herri bat
Herri bat osorik
Gero bat
Gero bat gaurdanik

ar
er
ir,or, ur
ar, ari
er, eri
ir, hiri
hara herri hori hiri!

gar
ger
gir, gor, gur
gar gorri
gorgarri
gure herri
geroaren egarri

Ez dok hamairu
Ez da malefiziorik...

Ez dok hamairu
Bada egitekorik...



Kirolariak ere euskararen alde.

Gazte-gazterik hasi zen euskara irakasten, 1965 urtean hain zuzen ere, hasieran gau-eskolan eta AEKko Txepetxa euskaltegia sortu ondoren hantxe bertan. 1995ean Txorierriko AEKren ardura hartu zuen. Berak adierazi bezala “lan handia da, baina hemen guztiok egiten dugu lan asko”. Urte hauetan zehar Korrikaren edizio guztietan parte hartu izan du, era batean edo bestean. Aurten, Guluk lagunduta, ilusioz prestatzen dabilta euskararen aldeko 13garren lasterketa Txorierrin.

Herri bat geroa lantzen... horixe da, bai. Aurtengo abestiak ere oso ondo islatzen du mezu hori. Herriak geroa eta euskara landu behar ditu. Euskarak etorkizuna izan dezan herri osoaren laguntza behar dugu, berba egiten, ikasten... Euskararen testigua eskuz esku eta gelditu barik helmugara ailegatzeak horixe adierazten du. Gainera, atzetik dagoen jendeak ere, kilometro bat edo kamiseta bat erosiz, korrika eginez... sostengua ematen dio euskarari. Era berean, AEK egiten ari den lana onartzen da.

Lan ikaragarria da. Lehengo eta behin, zein mezu zabalduko den pentsatu beharra dago. Horretarako, egungo egoeraren azterketa egiten da. Hori kontuan hartuta, non hasi eta non bukatzea erabakitzen da.

Egun horretan, kilometro guztietan pertsona bat egotea da nire kezka handiena. Ez da txantxa! Aurreko Korrika ere gauez pasatu zen eta kilometro bat egin behar zuen mutila loak hartu zuen... Pentsa ezazu! Hori uste baino sarriago gertatu da. Beraz, gure ardura da Txorierrin ez dadila gelditu, pasa dadila Korrika!

Batez ere, dirua. Normalean kilometroak saldu egiten dira, baina ekitaldietarako dirulaguntzak jasotzea ez da erreza. Dena dela, euskara taldeen laguntza daukagu. Orduan, dirurik ez izan arren, beti dute ideiairen bat gauza txikiekin jai handia egiteko.

Guztiak. Euskara ekitaldiak egin eta Korrika laguntzeko herri bakoitzean talde bat biltzeak poztasun handia ematen digu. Ez dute inoiz huts egiten. Korrika betidanik izan da oso arrakastatsua Txorierrin. Euskara dakitenek ez ezik ez dakitenek ere parte hartzen dute modu batean edo bestean: korrika egin, eranskailuak eramaten... Kaleko jendea, gurasoak, umeak... ikusten dituzu Korrikaren zain. Giro polita sortzen da. Aurten ere Korrika arrakastatsua izatea nahi eta espero dugu.

Especialitateak:

- Pintakok
- Plater kombinatuak
- Beuetariko urdazpiho iberrakok

Astoria lekuak: **Arreola**

Arreola lekuak: **Arreola**

Arreola lekuak: **Arreola**

7etatik irekia



Crazy Guitar

Zatudio

Larrundoko Ikastetxea
ESPERANZA ALIAMA
Lanbide Heziketa

ETORKIZUNERA BEGIRA HEZITZEN

Heziketa ikuslariak INFEMOkos ikastarorak
Lanbide Heziketarako Ikastarorak (C.F.P.)
Lanbiderako Prestakuntzarako Ikastarorak



Barrio de San Juan, 122, 48013 BILBAO
48013 BILBAO (VIZCAYA) - TELÉFONO: 94 471 01 91

Txorierriko gazteak Korrikaren alde



Ane Antón

Normalean ez dut korrika egiten, ez zaidalako gustatzen. Dena dela, halako inizatibei ondo deritzot, euskararen alde egiten den guztia lagundu behar dugu eta.



Asier Obregón

Behin baino ez dut korrika egin. Lagunekin joan nintzen eta oso ondo pasatu genuen. Ondo deritzot, euskara laguntzeko halako ekintzak egiten badira.



Erlantz Atutxa

Egia esan, inoiz ez naiz garaiz heldu korrika egitera... Antza, ni ailegatu ordurako pasatu egiten da beti. Euskararen alde nago eta oso ondo deritzot Korrika ospatzeari.



Diana Irazabal

Lagunekin lasterketan birritan hartu dut parte. Oso ondo pasatu genuen, itzelezko giroa zegoen eta.



Matxalen Martinez

Aurten ez dut korrika egingo, Txorierritik oso berandu pasatuko delako. Behin batean, anbulantzia atzetik joan nintzen lehen-gusinekin eta oso ondo pasatu genuen. Korrika egin eta gero, edalontzi bana txokolate eman ziguten.



Ane Calvo

Uste dut Korrikan mundu guztiak parte hartu beharko lukeela, euskarak aurrera egin dezan.



Ander Apraiz

Nire ustez, euskarak aurrera egiteko, gure laguntza ezinbestekoa da. Horrexegatik Korrika guztietan parte hartu izaten dut. Korrika egunean herri bazkaria egiten dugu herrian eta primeran pasatzen dugu.



Nere Mendiola

Nik korrika egin ez arren, pozik hartzen ditut euskararen alde egiten diren ekitaldi guztiak.

AVRTENETXE.S.A.

MAKINARIAREN SALMENTA ETA KONPOSAKETA
NEKAZARITZA - LOREZAINITZA

ERAKUSKETA ETA TAILERRA

Aretxalde, 105
Tel.: 94 435 62 66
Fax: 94 435 65 66
48190 ITZAMA (Bizkaia)

Autonomia, 57
Tel.: 94 427 29 18
Fax: 94 427 29 18
48012 BILBAO



HOTELA

JATETXEA

XPTEK-EROTE

Cilbar Confgaonatuindus

Astorga Auzoa, 83
48100 ASTORGA (Bizkaia)
Telefono 945 302 361 37
Fax 94 435 17 16
E-mail: hotel_jatetxea@astorga.com

Kurutze dantza taldea, txikia baina sendoa



Testua: Gorka Zarate

Badira urte batzuk Kurutze dantza taldea sortu zala. Hasieran auzo baten jaio zana –izenak berak gogoratzen deuskun lez–, gaur egun Lezamako taldea da, eta berak emon eutsen aspaldiko Odol Gazteko eta arteragoko dantzarietara jarraipen sendoa.

Sortu zaneke eta gaur egungo gorabeherak hobeto ezagutzeko dantza taldean ibili eta oraindino badabiltzan hiru partaiderengana jo dogu, eta eurek argituko deuskuez hango kontu guztiak. Idurre Aretxabaleta, Bakarne Etxebarria eta Mariñe Bilbao doguz hizketa-lagun: txistularia, lehenengoa, eta dantzarien amak eta taldearen arduradunak, beste biak.

Zer dala eta dantza-taldea sortzeko idea? Nori otu jakon?

Laurogeiko hamarkadaren hasieran izan ziran lehenengo hartu-emonak, Josu Barquín Kurtzea auzora etorri zanean. Berak, dantzearen harra sartu-sartuta eukan, eta giro hori ederto baten ezagutzen eban, San Antongo Bizi Nai dantza taldean be ibilia zalako-eta. Alkartu zan herritar hori auzoko beste lagun batzukaz, eta, talde baten beharra ikusi ostean, lanari ekin eutsien. Laurogeita biko izango zan gitxi gorabehera taldearen sorrera, eta

harrezkero txiki baina sendo aurrera egin eben eta egiten dogu guk geuk be.

Orduko sasoi hareetan, non alkartzan zinien? Eta gaur egun?

Entseguak egiteko leku ezbardinak euki doguz. Hasieran, Kurtzeko garaje baten egiten genduzan, bertako batek borondate guztiagaz ixten euskun berea zana, baina autoren batek urten edo sartu behar izaten ebanean, guk geureari itxi eta alboratu behar izaten ginen; ez zan, ez, lekurik aproposena, baina, besterik ez

genduan eta, bertan egon behar. Urte batzuk geroago, Lezamako Udalak frontoia itxi euskun, gauzak hobetu egin ziran eta ez genduan geldialdirik egin behar izaten kotxeakaitik, baina bai, oster, pelota partiduak egoten ziranen. Peloteak beti euki dau Lezaman dantzeak baino indar handiagoa, eta ixilik egon behar.

“Hasieran, Kurtzeko garaje baten egiten genduzan entseguak”

Azkenean, frontoiko geldialdiak eta, batez be, hango hotza alde batera ixtearren, beste leku aproposago bat eskaini euskun Udalak, aurrekoa baino beroagoa, baina ez horregaitik egokiena: ludotekea. Horrek be badiu arazoak, umeez ludoteka orduetan egindako lanak apurtzeko arriskua, esaterako; baina, egia esan, aurreko egoitzetan baino hobeto gagoz hor.

Noiz egiten dozuez entseguak?

Normalean bariku iluntzeetan, zazpiak aldera, eta zapatu goizetan, hamaiketan; neguan, eta oporretan ez dogu entsegurik egiten, ez bada jendaurreko ekitaldiren baterako azken prestaketak egin behar doguzalako.

Badakigu beste ekintza batzuk dagozala ordu berean: futbola, esate baterako; eta alde horretatik pitin bat baztertuta sentitzen gara. Baina, gazteentzat horrenbeste ekintza egonda, gertau leitekez horrelakoak. Ahal dan neurrian baino ez bada be, eskaintzen diran ekintzen ordutegiaren ganean zer edo zer egin beharko geunke, Lezamako talde guztion ekintzak ez daitezkan ordu berberetan alkartu.

Nork irakasten ditu dantzak?

Batzuk joan besteak etorri, urteakaz monitore asko izan dogu, baina beti izan dogu jende jatorra. Gaur egunean jende

“Entseguetan euskera da nagusi, batez be Zorritzetan Lezamako euskera alkarteagaz konpromisoa izenpetu genduanetik”

“Taldearen helburuetako bat herriko gazteak euskal kulturaren inguruan alkartzea da”

gaztea dabil monitore eta ondoko herrietako dantza-taldeetatik etorritakoak dira gehienak. Euskaldunak dira, eta entseguetan euskera da nagusi, batez be Zorritzetan Lezamako euskera alkarteagaz konpromisoa izenpetu genduanetik.

Zelintzuk dira taldearen helburuak?

Esan dogun moduan, helburuetako bat euskeraren erabilera indartzea da. Argi dago, ganera, dantza taldea izanda, dantzak ikastea dala beste helburu bat; baina, batez be, hauxe gura dogu: herriko gazteak euskal kulturaren inguruan alkartzea. Gure ustez, dantzea benetan sentidu eta taldean dantza egiten danean sortzen dan talde-euforia bizi izan ezkerro, betiko geldituko da dantzarako poza, edozein momentutan musika entzunda, hankak joan egingo jakuz eta ezin hobeto pasauko dogu dantzan, begira egon barik, sarri askotan gertatzen dan moduan.

Zenbateg osatzen dozue taldea?

Hogeita bik, gitxi gorabehera. Lehenengo urteetan neskak eta mutilak ziran; azkenotan, ostera, neskak bakarrik dagoz, ez daukagu mutilik. Neskakaz talde bi osatzen doguz, bata, txikiena (5, 6 eta 7 urtekoak), eta bestea, nagusiena (11 eta 12 urtekoak). Inoiz mutilak be etorri jakuz, baina, taldetxoa egiteko beste mutil ez dagoenez, azkenetako abroziduta edo aspertuta joan egiten jakuz. Horrexegaitik,

AIKOR!-ek emoten deuskun aukerea aprobetxautu, dei egiten deusuegu gurera etorri zaitezen. Horretarako, Lezamako liburutegiko 944556126 telefonora deitu eta bertan izena eta telefonoa ixtea baino ez daukazu; geu arduratuko gara beste guztiaz.

Zelintzuk dira aurrera egiteko daukatzuezan diru-iturriak?

Urtero-urtero Lezamako Udalari aurrekontua aurkezten deusugu, eta Udalaren dirulaguntza horregaz bizi da taldea. Guk geuk be, dantzarien guraso garenok, mila hogierleko ipinten doguz urtean (30 euro), baina zer edo zer ipintearren; benetako iturria Udaletik jatorra.

“Lehenengo urteetan neskak eta mutilak baziren ere, gaur egun neskak baino ez dagoz taldean”

Non egiten dozuez jendaurreko ekitaldiak?

Gehienak Lezaman izaten dira, herrian bertan eta auzoetako jaietan. Noiz edo noiz, urtero egiten dan Dantzari Egunean be hartu dogu parte; baina arazoak izaten doguz jai handi horretako programea beteteko. Batetik, behar diranak baino gitxiago garalako, eta, bestetik, lehenengo jaunartze sasoiari dalako. Dantza-taldeko lagunek esan deuskuen legez, animo! Jantziak be prest daukiez. Ia, ba, Lezamako gazteria animetan dan eta ez dan bidean galtzen Pirmin Treku lako dantzari famaturik. Nork jakin?

OSKARBI
fotografoak
BIZKAIA/ARRETXARTE

TAL. FRI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: spicoz@euskalnet.net

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Escritura y Traducción

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Poligono Torrelanaigiti P.B.B.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
E-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - fax 94 452 22 34

hotela jatetxea aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

OLANDO S.L.
AROTEGIA

- Sukaldeko altzariak, neurria eginak
- Bainugelako altzariak, neurria eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Enbete Industrialdea
115 plataforma, 34 nabes
48960 Galdakao (Bizkaia) Tel./Fax: 94 456 06 00

Nekazaritza ekologikoa: kalitate kontua

Testua eta argazkia: Saionara eta Maripi

Jose Antonio eta Nekane larrabetzuarrak nekazaritza ekologikoan aritzen dira. Nekazaritza mota hau zertan den jakiteko asmoz, eurengana jo dugu. Euren iritziz, baserri txikia edo familiarra bultzatu beharko litzateke, baserriaren oraingo egoera hobetzeko. Horretarako, erraztasunak eman beharko lirateke zuzeneko salmenta egiteko, eta horretan administrazioak ere zeresan handia dauka. Beste alde batetik, eskolan nahiz etxean hasi beharko litzateke baserria eta baserritarra izatea zer den irakasten eta janariaren garrantziaren kontzientzia hartzen, izan ere, egunero jaten dugu, eta behin baino gehiagotan gainera!

Zeintzuk dira nekazaritza ekologikoaren oinarriak?

Oinarriak? Ingurumena errespetatzea, produktu kimikorik ez erabiltzea, prebentzioa eta errotazioak eta asoziazio teknikez baliatzea.

Prebentzio lana, zertan datza?

Guk, batez ere, luki buztana eta asunak erabiltzen ditugu landareak indartzeko eta onddoei aurre egiteko, izurriterik egon ez dadin, badira beste gauza batzuk ere, sufrea adibidez.

Eta izurriterik agertuz gero, zer?

Borroka biologikoa erabiltzen dugu. Esate baterako, negutegietan, hezetasunaren ondorioz, euli zuria agertu daiteke eta hari aurre egiteko, berarekin bakarrik elikatzen den mamorroa sartzen dugu.

Zer esan nahi du errotazioak?

Bada, inoiz ez dela landatzen produktu berdina leku berean.

Eta asoziazioak?

Landare batzuk elkarri lagundu egiten

diote (arto-indaba) gaixotasunei aurre egiteko; beste batzuk, ostera, bateraezina dira.

Zein produktu landatzen dituzue?

Sasoian sasoikoak mantentzen ahalegintzen gara. Hori da, gure ustez, egokiena. Momentu honetan; azelgak, erremolatxak, babak, letxugak, ilarrak...

Askori entzuten zaie produktu horiek garestiak direla. Emaguzue arrazoi bat, kontsumitzeko orduan, gai horien alde egiteko.

Kalitatea. Konbentzimenduaren arabera, ekologikora edo bestera joko dugu, baina argi daukaguna da, baserri txikia ez hiltzeko, jendeari esan behar zaiola baserria edo azokara joan dadila zuzenean erosteko.

Zeure kasuan, Jose Antonio, zerk eroan zaitu lehen zaletasun soila zenetik mota honetako baserri-produkzioara?

Alde batetik, hasiera baten, jasotako produktuak etxerako izan dira eta beti izan dut baserri inguruan zer-bait egiteko gogoia. Horretaz aparte, nekazaritza mota honi buruzko informazioa ere izan dut eta egokia iruditu zait. Ez da sineste kontu bat bakarrik, konbentzimenduz egin behar den gauza baino.



Produktu autoktonoak erabiltzearen aldeko apustua egin behar da.

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gomeloa 58 • Tel. 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Geltolitzza Auzoa, 36
48196 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

Floristeria Jenda
Floralak, Florak, Plantak, Berrak
BIZKAIA
Adiketa, Zaldia, 2
48120 SONDARA - Bizkaia
Tfno. +34 94 4 19 52

PGP (Pretty Good Privacy)

E-mail edo postakutxa elektronikoa gero eta gehiago erabiltzen dogu garrantzi handiko gauzak bialtzeko. Enpresetan asko erabiltzen da, isilpeko dokumento garrantzitsuak bialduz egunero. Segurua da Email bidez holango mezuak bialtzea?

Postakutxa elektronikoa berez ez da zer-bitu segurua; mezu bat bialtzen dozunean, serbidore batzuetatik igarotzen da testo huts bezela eta edozeinek irakurri leike bere menpera heltzen bada. Ez da hain erreza hor erdian ipintea beste inori jakokon mezua jasoteko, baina pirata informatikoak (hacker, kracker ...) eta holango programak, espiotza egitekoak (Carnivore, Magic Lantern, Netbus...) lortu leikie. Hori eragozteko sortu zan PGP.



eta beste klabe pribatu baten bidez enkriptazio mota bat erabilita aldatzen dauana mezua; mezua bakarrik irakurri leike zuk gura dozunak, hartzaileak, eta besteren batek jasoten badau mezu hori ezin izango dau irakurri, berarentzat ulertezina izango dalako.

Zelan erabiltzen da?

PGP programa instalatu egin behar dozu zeure ordenagailuan, zure e-mail programaren barruan (Eudora, Outlook express, Microsoft Outlook...). Klabe pribatu bat sortzen dau eta beste bat publikoa; hori bialdu egin behar deustazu zure mezua-ren hartzaileari, eta berak be PGP instalatuta behar euki dau, baita zuk bere klabe publikoa euki be.

Zer da PGP?

Philip Zimmermann-ek sortutako enkriptazio sistema bat da, klabe publiko

Mezua bialtzerakoan, bere klabe publikoagaz enkriptatzen dozu eta berak baino ezin leike desenkriptatu bere klabe pribatua erabiliz eta beste batek jasoten badau karakter ulertezinak jasoko leukez. Kontua da klabe pribatua zure mezuaren hartzaileak baino ez daukala.

Ezaugarriak

- PGP guztiz segurua da, kodea ezin dalako deszifratu.
- Errez-errez instalatzen da.
- Ondo integratzen da gure e-mail programan.
- Doan da.
- Oso erabilera erreza dauka.
- Manual, tutorial eta dokumentazio asko dago Interneten.

Helbide interesgarriak

<http://www.rediris.es/pgp/>
<http://www.geocities.com/SiliconValley/Pines/2332/>
<http://delitosinformaticos.com/seguiridad.shtml>

Sarea ere Euskaldunon Egunkariaren alde

Egunkaria-ren itxiera dela eta, Interneten komunikaziorako gaitasuna baieztatu egin da. Izan ere, informazioa lortzeko zein elkartasuna adierazteko hainbat txoko zabaldu dira sarean. Itxiera nazioartean salatzekeo kanpaina bat jarri dute abian, eta, esate baterako, www.euskalnet.net/ileturia/egunkaria helbidean euskarazko, ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko mezuak prestatu dira Internetetik mundu osora zabaltzeko. Ekimen honen helburua da, Googlen Egunkaria hitza bilatzean, www.egunero.info eta orri hau bera lehenengo postuetan agertzea. Hasieran aipatu den bezala, hau adibide bat baino ez da. Ondorengo helbide hauetan, berriak, aukera izango duzu azkeneko berriak jakiteko zein

Egunkaria-ren alde ahotsa goratzeko:

www.sustatu.com
www.gara.net
www.google.com/press/zeitgeist.html
www.vilaweb.com
www.indymedia.org
www.euskalherria.indymedia.org

Elkartasun mezuak

egunkaria@wanadoo.fr
egunaurrera@yahoo.com
egunkariabai-subscribe@yahoo-groups.com

Posta zerrenda

groups.yahoo.com/group/egunkariabai/

PGP guztiz erabilgarria da eta segurtasun-leku guztietan aholkatzen dabe erabiltzea. Philip Zimmermann-ek arazoak euki ebazan Estatu Batuetan, enkriptazio legeak gorrogoak diralako han. Internet kontrolpean euki gura dabe eta PGP sistemea horren aurka doa.

Testua: Alberto Legarreta

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
 Sien Martin sarrea, 130
 Zamudio (Bizkaia)
 Tel.: (94) 452 00 85 - 55
 Faxa: (94) 452 11 46



SUINOR COMPUTER, S.L.

POL. IND. TORRELLARRAGOTI, POL. BLOQUE 1, NAVE 3 - ZAMUDIO



www.suinor.com

!!! 10 AÑOS CONTIGO !!!

BILBAO INFORMÁTICA - c/ Autonomia, 54 tel / fax: 94 4216004
 BARAKALDO INFORMÁTICA - Avd. Miranda, 3 telefono: 94 4781643
 LEIOA INFORMÁTICA - Avd. Iparraguirre, 54 - local - (galerías batzoki) tel. 94 480 46 38

DERIO FRUTADENDA



Sollube, 8
 Tfnoa: 605 77 12 62
 DERIO

Izartza eskola: lan

Sondikako eskola eraberritzen ari dira bertan jatetxe bat jartzeko

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Koldo Niembro

2001eko abenduan Izartzako eskola zaharra eraberritzen hasi ziren, Udalaren eta Peñascal fundazioaren artean lortutako akordio baten ondorioz. Proiektuaren helburua ostalaritzako eskola bat jartzea da, Txorierriko gazteei arlo horretan prestakuntza emateko. Horretarako, milioi bat euro inbertitu da eta maiatzaren 3an obrak amaituta egotea espero da. Ildo horretan, Txorierriko Behargintzak ikasleak hartzeko ardura hartu du. Egitasmo horren garrantziari buruz hitz egin dugu Udalen Enpleguko Zentroko Amaia Diezekin.

Arduradunek diotenez, Izartza proiektua oso garrantzitsua izango da Mankomunitaterako, ekintza honen bidez helburu bikoitza lortzen baita: alde batetik gazteei prestakuntza praktikoa ematea eta, bestetik, ostalaritza-eskola martxan jartzea Txorierriin.

Langabetuak igeltserotzan, iturgintzan eta antzeko lanbideetan prestatzen dira. Eraikina prestakuntza praktikokoaren bidez egokitzen ari denez, hauek prestatu egiten dira, etorkizun handiko lanbideetan arituz. "Lehen, unibertsitatera joatea zen gazteen helburua. Baina lan-merkatua unibertsitariorik gainezka dago eta orain beste mota bateko profesionalak eskatzen dira", azaldu digu Amaiak. Ohiko lanbideetan trebetasun handia behar izaten da eta eskolaren zeregina langile onak prestatzea izango da. "Horrexegatik, antzina bezala, ikasleek profesionalengandik ikasten dute, haiekin egunero lan eginez", aipatu digu teknikariak. Hala ere, aitortu digu oraindik gazte askok lanbide hauek baztertzen



Izartza jatetxe-eskola eraikitze lanak maiatzan amaituko dira.

dituztela. "Beti pentsatu dugu ikasteko balio ez duen jendearentzat izaten direla behar hauek, baina ez da hala. Igeltsero ona izateko esfortzu handia egin beharra

dago eta, egia esan, gaur egun estimazio handia izaten dute lan-merkatuan. Gainera, enpresan igotzeko aukera ere badago hor", komentatu digu.



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

**LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK**

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

merkatuari begira

o. Jatetxe horretan ostalaritza-ikasketak egingo dituzte gazteek.



Ezkerraldean, eraberritze lanak eta eskolako kanpoko ikuspegia / Eskumaldean, jantokiaren irudi birtualak.

Aukera gehiago lan-merkatuan

Eraberritze lanak amaitu ondoren, Iztartza eskola jatetxe handi bat bilakatuko da. Txorierriko gazteek ostalaritza-prestakuntza jaso ahaliko dute bertan. "Egiazko jatetxetzat erabiltzea da gure asmoa. Orduan, klase teorikoak hartzeaz gain, ikasleek hainbat profesionalekin batera egingo dute lan", ziurtatu digu Amaiak.

Sukaldari laguntzailea eta barrarako edo jangelarako zerbitzaria izango dira gazteek Sondikako jatetxe-eskolan ikasi ahal izango dituzten lanbideak. Amaiak azaldu duen legez, prestakuntza jarraitua izango da eta ikastaroa ez da amaituko irakasleek ezagupen guztiak barneratuta dauzkatala egiaztatu arte.

"Lan aukerarik gehien eskaintzen duen sektoreetariko bat ostalaritza da. Nolanahi ere, oso gogorra denez, gazte gehienek uko egiten diote. Beste sektore batzuekin gertatu den bezala, erregularizatuz gero, gauzak aldatuko direlakoan nago", dio Behargintzako langileak.

Consulting S.L.
Sabin Askolizaga
Aspeitua Asoliza
Allianz
609 47 57 46
Tlf. 94 4531807
Fax 94 4531027
Mintzar, 6. Itakoa
48150 Sondika-Bizkaia

CARROCERIAS TXORIERRI
R-M
PINTURA
José Antonio Sanz
TXAPA ETA LABE-PINTURA
Torrelagotiti poligonoa
Vial sur C-15, Nave: ES-1
48160 Zamudio (Bizkaia)
Telefonos: 1. xor: 94 457 28 00

GARRAIOLARIA
Miguel Angel Leku:
ANDRA MARI, 19
LARRABETZU
Tlfoa. 94 455 80 20

ZAMUDIO MOTOR
IDENTICA
94 452 1616
94 452 1646
Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

AUTOMOCIONES
Nive Auto
SANTIMAN 4
TEL. 68970611
64967712
AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelagotiti Ind. II - 216 Pab.
Tel.: 94 452 67 69
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Sondikan zehar...

Testua: Juan Ignacio Eguzkizaga

Gaur egun ezin da Sondikatik ibili errepiderik zapaldu barik. Lerro honeetan proposatzen deusuegun ibilbidean danetarik aurkituko dozuez.


Goiri plazatik Olarantz abiatuko gara Izartzako bidetik. Trenbideko zubi azpitik pasa eta gero, ezkerraldeko geltokirantz joko dogu. San Martin bidetik Goietxa auzora helduko gara. Paraje horretan platanero zahar handi bi ikusi geinkez.

Aurrerago jota, Goietxa errekatxuaren ganeko zubitik pasako gara. Hogei metro aurrerago, eskoa aldean sasi artean dagoan bidexkatik errekatxura jaitsiko gara. Ha harririk harri saltoka pasatuta, ezkerraldeko, antzina Larrondoko uharka egoan tokirantz abiatuko gara, era askotako arbolez betetako basotxu batetik.

Aurrera jarraituta, oraindino ikusi geinkez uharkaren hondakinak eta, eskoa aldean, sasi artean, behinolako txiringitoarenak. Berrogei metro aurrerago, Larrondoko bidezidorragaz topatuko gara eta ezkerraldera barriro zeharkatuko dogu erreka. Handik oso hurrean dagoan Lezamako trenbide zaharretik jarraituko dogu. Txankele etxetik aurrera bidea guztiz zarratuta dago eta ezin izango doguz ikusi inguru horretako paraje ederrak.

Orduan, eskoa aldera egin beharko dogu, aldats goran, harezti batetik Urkiago errepideraino, eta hemendik Mendikoetxe auzoraino. Eskuma aldean, etxe barriaren ondotik, orain bai, Lezamako trenbide zaharretik (orain landa-bidea bihurtuta) Urrekolandako ur biltegira helduko gara eta bertan hazi diren izei eder bi ikusiko doguz.

Hemendik Laukenetara eta tunel zaharrera oso pista ona dago eta, besteak beste, urkiak, gaztainak eta arkaziak ikusi geinkez trenbidearen alde bietan, baita trenbidearen arrasto batzuk be. Tunela ez da erraz ikusten, bere sarrera lupetzaz eta



sasiz beterik dagoalako, baina han sartzen bazarrie, ilunetan, tunelaren Bilbo aldeko urteera agiri da 20 metro harago. Halan eta guztiz be, ez da gomendatzen tunele-jaotea.

Trenbidea amaituta, eskoatara joango gara, Artxandako goiko aldetik datorren goi tentsioko linea elektrikoa baino beheragotik Pike errepideraino. Zati horretan gaztainadi bat eta aretx bat edo beste dagoz.

Piketrik behera errepidez egingo dogu bide guztia, eta ez da arazorik egongo. Pike baserrian beti irakurtzen diharduen baserritar bat ikusi ahal izango dozue. Baina, zoritxarrez, ezin izango dozuez Mandako Erdi Aroko begi biko zubia eta Artxandako kaltzada mirestu, galduta dagoz eta. Izartzan San Martin ermitako santua ikusi zeinkie. Ermita hori BBK-k eginitako ikastetxea dagoan tokian egoan lehen.

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lekendakari Irujo Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49

Zamudio (Bizkaia)

CENTRO MASAJE

LASAI

Tratamientos:

- Ultrasonidos (Electroterapia)
- Masajes
- Quiropraxia
- Masaje
- Ejercicios correctivos

Clínica especializada en:

- Cines de lesiones (Accidentes)
- Ejercicios de la mano
- Clases deportivas
- Fisioterapia

7º Viala, 4 (1º planta)

91011 LUGO (Galicia)

Tel: 91 411 3076

Móvil: 655 14 24 05

Fax: 91 411 3076

Fax: 91 411 3076

Inmobiliaria

ETORKI

Hortiko Plaza, 1 Leizola

Tel: 94 454 50 53

Móvil: 607 32 35 53

40160 DERNI

1915 vs 1993

Zamudiotik Ameriketarako bidaian, Francisco Echevarriak Bilboko portuan hartu eban *Hudson* barkua. 1915eko martiaren 18an Ellis Island-era heldu zan. 20 urte ebazan eta *Mountain Home*, Idaho, helburu.

Urtebete beluago, 1916ko martiaren 16an, *Burdeos*en *La Tourine* barkua hartuta, Jose Aldana heldu zan 17 urterekin. *Idahon*, Pelayo anaia eta Francisco bere zain.

1993ean, hegazkinez eta beka bate-gaz zorroan, Franciscoren arrebarik zaharrenaren iloba *Renora* heldu zan.

Nevadako basamortuan, 80 bidea hartu, gero 95a iparralderantz eta bizkaitarren kontrolpean sartzen gara. Bidean, *Basque* izeneko geltokitxo pasatu; *Lasa ranchen* sarrera ikusi eta *Jordan Valleyen*, Madariaga gasolindegia; *Telleria's market* eta *Yturri boulevard* alde baten itxiz, *Idahorantz* artez.

1915an, Echevarria eta Aldanak bide luzeagoa egin eben. *New Yorken* trena hartu. Paparrean txartel bat, *Mountain Home* errantxoaren eta Jose Bengoetxea errantxeroaren izenakaz.



Echevarriaren alaba eta Mrs. Aldana 1994. urtean.

Bateren batek esango eutsien non gel-ditu, eta bien bitartean gogoeta asko. Pozik, soldaduzkatik alde egitearren eta okoiluren baten bildurra, ikusi behar ebenagatik.

Momentuz, lan gogorra. Hilabete osoak *Mackeyko* mendietan, karro-kanpoa hartu eta ardi peste mordoza zaintzen, jende asko ikusi barik.

Kontratua betetu eta amaitzeko gogoaz.

Orain, *Mackeyn* ardirik ez, baina "Lora-mendi" izeneko etxea dogu eta handik paraje Echevarriaren alabea eta Mrs. Aldana.

Testua eta argazkia: Amagoia Gezuraga

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierriin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berriztaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atsedean hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzaile eta automasajeko koltxonetak.

LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bakoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Zein sari jaso du Kukubiltxok Gijonen?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), apirilaren 14a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Aurreko galderaren erantzuna: 2002. urtean seme-alabak izan dituzten gurasoei zuzenduta dago Txorierriko Euskara Zerbitzuak.

Irabazlea: Jokin Zubietta



Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Gisadua

- Gisetako kilo bat okela ("aguja" esaten jakona).
- 4 azenario
- 3 berakatz atal
- Kinpula handi bat
- Perejila
- Patata bi
- Tomate bat
- Piper txorizero bi
- Gatza
- Oliba orioa

Okelea takotan ebagi eta gatza egin; kazuela baten orioa ipini eta okelea bota. Su bizian apur bat gorritu eta, eginda dagoenean, bota beste osagai guztiak txikituta, patatea izan ezik. Hau dana euki ordubetea (gitxi gorabehera) egiten eta gero patatea txikituta eta ura bota. Euki beste ordu erdi baten egiten (ura, behar dauen neurrian). Gura izan ezkerro, beste osagai batzuk be bota ahal jakoz: idarrak, alkatxofak, eta abar.



Mari Tere Onaindia



Pikillo piperren entsalada antxoa eta gulekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Lata bat pikillo piper
- Lata bat antxoa
- Pakete bat gula
- Sagardo ozpina
- Berakatz
- Pipermina (gorria edo berdea)

Prestatzeko era:

Lehengo eta behin, pikillo piperrak erditik ebaki eta haziak kendu behar ditugu. Berakatz txikitu ondoren, antxoak nahastuko ditugu latako olioarekin, ozpinarekin, piperrekin eta gulekin.

Aurkezteko era:

Plater bakoitzean, lore-itxura emanaz, lau piper ipiniko ditugu eta, piper bakoitzaren gainean, antxoa bat. Nahi izanez

gero, eskarola (julianatan ebakita) ipin daiteke erdian apaingarri moduan. Gatza bota ostean, gulak ezarriko ditugu erdian.



Lejarrene jatetxea (Lezama).

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua



Tratamendu lerroak

- Erabilitako olioak
 - Agortutako taladrinak
 - Disolbatzalleak
 - Automozio
- hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefona: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619



OKINDECIA-DASTALEKUA

Aretxalde, 64
Ieft.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Untxi magikoen matxinada"

Ariel Dorfman

Matxinatu, hori da untxiek daben urtenbide bakarra. Otsoek herriaz jabetu dira eta buruzagi barri bat izendatu dabe. Untxia izena aitatzea debekatuta dago, baina untxiak behin eta barriro agertzen dira.

"La voz de Lug"

Toti Martinez de Lezea

Oraingo eleberri honetan, erro-matar garaia aztertzen dau eta euren eragina Kantaurialdeko tri-buetan.

DISKOAK

"Txikitxuterik"

Iker Goenagak

Zizurkildar trikitilariaren biga-rren grabazioa da. 12 abestiz ostu-rik, musika herrikoiaeren izaeraz markaturik dator, baina ikuspegi garaikide bat emoten saiatzen da.

"Gaua iristen den momentua"

Ambulance

Lakuntzako talde honek urte hasieran grabatutako diska dogu.

2002an Nafarroako pop-rock lehiaketan sarituak.

Melodiaz betetutako diska, baxu eta teklaturen indarra nahasten da; abestien artean dagozan balada bik lasaitasun puntua emonten deutse.

DENBORA PASA

Letra zopa

Aurkitu Euskal Herriko 7 mendi.

A	R	I	G	O	I	T	Z	A	I	N
K	O	R	D	A	D	A	K	E	G	I
E	K	A	L	N	N	B	E	T	Z	A
L	G	O	R	B	E	I	A	G	O	Z
E	L	G	O	R	I	M	T	I	H	I
T	Z	T	I	A	R	R	A	Z	I	H
I	O	T	Z	A	R	S	I	Ñ	E	R
O	U	L	Z	U	E	R	B	I	U	O
L	E	K	O	N	D	O	L	A	Z	A
H	I	R	U	Ñ	M	A	H	E	T	Z
E	S	T	E	R	O	L	A	R	R	U

Erantzuna: Gorbela, Izarraitz, Orhi, Añamendi, Tololoño, Anboto, Saioa.



Irteerak

Sondika

Herri Urrats. Senpere. Maiatzaren 11n.

Ibilaldia. Lekeitio. Maiatzaren 18an.

Operación Triunfo saioko partaideek Bilbon emango duten kontzertura irteera. Maiatzaren 31n. Informazioa eta izen ematea Gaztetxean apirilaren 1etik 7ra arte.

Zamudio

"Peter Pan" antzezlanak ikusteko irteera. Apirilaren 24an Arriaga antzokian. Prezioa: 5 euro (sarrera + autobusa)

Herri Urrats. Senpere. Maiatzaren 11n, 08:00etan. Fidantza: 5 euro.

Ibilaldia. Lekeitio. Maiatzaren 18an, 09:00etan. Fidantza: 5 euro.

Iruñera irteera. Maiatzaren 11n. Prezioa: Zamudion erroldatutakoentzat, 15 euro; gainerakoentzat 21,60 euro.

Zerain-Baionara irteera. Maiatzaren 18an. Prezioa: Zamudion erroldatutakoentzat, 15 euro; gainerakoentzat 24,60 euro.

Lezama

Harrobiei aurkako protesta egiteko Mañariarantz irteera. Apirilaren 6an, 08:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Leoneko mendietara irteera. Apirilaren 17tik 21era. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Triciclen azken ikuskizunerako irteera: "SIT". Maiatzaren 3an, Social Antzokian (Basaurin). Galdetu Udal Liburutegian.

Filmak eta antzerkia

Loiu

"El garaje de los pulpos" antzezlanak. Apirilaren 25ean, 20:00etan Larrondoko Gizarte-Etxean.

Sondika

"Javier Mañón". Nagusientzako antzerkia. Apirilaren 11n, 19:30etan, liburutegian

Zamudio

Filmak: **"Asterix y Obelix. Misión Cleopatra".** Apirilaren 4an Apirilaren 12an, **"Harry Potter y la cámara secreta".** Apirilean 26an **"El guardián de las palabras".**

"La muerte y Nat" antzezlanak. Apirilaren 11n, 19:30etan. Dorretxean.

Lezama

Filmak: Apirilaren 4an **"Jimmy Neutrón. El niño inventor".** Apirilaren 11n **"Asterix y Obelix. Misión Cleopatra".** Biak 17:30etan, Kultur Aretoan eta adin guztietarako. Galdetu Udal Liburutegian.

Lehiaketak

Lezama

Gomazko paleta herri mailako txapelketaren hasiera. Pilota elkarteak antolatuta.

Bizkaiko herri arteko eskupilota txapelketaren hasiera, frontoian. Pilota elkarreko kirolariek hartuko dute parte.

Ipuin kontalaria

Zamudio

Aitor Txarterina. Apirilaren 9an, 19:00etan liburutegian. Nagusientzako ekitaldia.

Bestelakoak

Sondika

Argazki rally-a. Apirilaren 27an. Sondika Goiri Elkarte Fotografikoak antolatuta.

Gaztetxeko egitarau berezia

Txalaparta lantegia. Apirilaren 4an.

Gazte-antzerkia: Javier Mañón. Apirilaren 25ean, 20:00etan.

Zamudio

Paul Nicholson, EHNEko ordezkariaren hitzaldia. Apirilaren 3an, 20:00etan Dorretxean. Lagatzuk antolatuta.

Lezama

Plater-tiroko entrenamenduak. Eguazten arratsaldeetan eta zapatu eta domeka goizetan, Errekatxun. Lezurmendi elkarteak antolatuta.



ZAMUDIO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA
CONDOMINIO DE VIVIENDAS Y COMERCIO EN ZAMUDIO
HUBO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Miami, 1
Tel: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11
EXED ZAMUDIO (Kalea)

SANTI MIAMI
ALBAITARRIA
Tel: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11

OPTIKA IKUSLAN

Diagnostiko graduatuko
kontakto lentak
Eguzkitako beharretarako
Lentakuzko markak.

Ora kalera, 3. floor, 91 452 28 18 ZAMUDIO

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Rta de Salazar y Jilaga, 5 - Barrio de San Pedro, 1 - 48011 BILBAO
Telefonoa 94 429 89 10 - Faxa 94 429 87 12
Zamudioko Polizia-delegazioa Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74

MENFORSAN S.A.
IZURRIEN KONTROLA

Menforsan, izurrien kontrola - ingurumen lehiaketa
Udaren publikazioa izurrien - ingurumen lehiaketa

- Izurrien kontrola.
Zuzendaritza ordea, proiektuaren zuzendaritza
- Osasun publikoaren arloa.
Antzizko gailuen diseinatuak/erabilerak diseinatuak
- Eguraren arloa.
Aluminio, plastik eta beste materialen erabilera
- Pisu, altzari, termotan kontrolatzen diren materialen erabilera
- Aluminio, plastik, lathak, lathak eta erabiltzen diren materialen erabilera

Berre osoa

AVDA. PINA, 17 - 48170 ZAMUDIO - BIZKAIA - APDO. 1389 BILBAO
TEL: 94 452 02 64 - FAX: 94 452 30 46



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

atera gorria!



bbk=

www.bbk.es

BBK26=
abantaila eta deskontu pila